



Etxean kontu kantari- Azaroa:

Ttikirrikittona

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkarte.

Ttikirrikittikirrikittiirrikittona,
Rikittiki, rikittiki, rikittikittona...

Haurra sehaskatik atera eta jolasteko; kili-kili eginez, dantza arazten, gora eta behera...

Kuku miku santaliku

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkarte.

Kuku miku, santaliku
txoriak umeak egin ditu.
Non?
Haritzaren adarrean.
Kaka gure mutikoaren bizkarrean.

Kili-kiliak egin eta bukaerarekin gorputz zatiak aldatuz joan.

Honek txotxak bildu

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkarte.

Honek txotxak bildu.
Honek sua egin.
Honek arrautza frijitu.
Honek pixka-pixka bat probatu.
Eta handi pikaro honek
den-dena xurupatu

Ahapaldi bakoitzean atzamar bat ukitu; lodia ailegatu eta esku ahurrean kili-kiliak egin.



Kanika txikia

Zubizarreta, I. (2010). *Sasi guztien gainerik*. Galtzagorri elkartea.

Kanika txiki bat dabil
Saltoka eskutik eskura.
Nork ote du? Nork ote du?
Nork ote du gure kanika.

Jokalari bakoitzak esku- ahurrak elkarturik izango ditu. Bi bule ditu jokoak: batek bi eskuen artean gordetako kanika pasako du jokalarien esku tartetan, besteak asmatu behar du zeinen eskuetan utzi duen aurrekoak kanika eta hura harrapatu beharko du irabazteko.

Txitxitela

Zubizarreta, I. (2007).

Bularretik mintzora.

Galtzagorri elkartea.

Txitxi tela
papa tela,
bihar dela Bazko,
etzi xinger moko,
arrautza eta koxko.
Nik axala, hik mamia,
krik!, ahorako

Haurrari esan jaten duen
bitartean.



Maria Goikoa

Zubizarreta, I. (2011). *Jolas Molas*. Galtzagorri Elkartea.

- Egunon, Maria Goikoa
- Zer duzu behekoa?
- Iturrira al zatoz?
- Ez.
- Zergatik bada?
- Senarra etorri.
- Senarra etorri, eta zer ekarri?
- Zapatak eta galtzerdi.
- Eta zer kolore?
- Zuri, gorri eta Kikirriki!

Buruz ikasi eta antzeztu etxeko festatxoetan.

Anjel Lertxundi eta Antton Olariaga. (2011). *Maria Goikoak batbirulau!* Erein. Klis-klasikoak.

Txalopin txalo

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik mintzora*. Galtzagorri elkartea.

Txalopin txalo,
txalo eta txalo.
katutxoa mizpira
gainean dago.
Badago bego,
txalo eta txalo,
zapatatxu berriei
begira dago.

Kantatu eta txaloz lagundu , nahi izanez gero antzezteko ere erabil daiteke.